



JUNTAS GENERALES DE ALAVA

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

SUPLEMENTO

al Boletín Oficial
del Territorio
Histórico de Álava

GEHIGARRIA

Araba Lurralde
Historikoaren
Aldizkari Ofiziala

2011ko abenduaren 30a, ostirala

ZENBAKIA 153 NÚMERO

Viernes, 30 de diciembre de 2011

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

7228

19/2011 Foru Araua, abenduaren 22koa, Ondarearen gaineko Zerga arautzen duena.

Arabako Biltzar Nagusiek, 2011ko abenduaren 22an egindako Osoko Bilkuran ondoko Foru Araua onetsi dute:

19/2011 Foru Araua, abenduaren 22koa, Ondarearen gaineko Zerga arautzen duena

ZIOEN ADIERAZPENEA

Ekonomia Itunak 24. artikuluan xedatzen du Ondarearen gaineko Zerga arautegi autonomopeko itundutako tributua dela.

Ondarearen gaineko Zerga indargabetzen duen abenduaren 22ko 22/2008 Foru Arauaren bidez, abenduaren 11ko 23/1991 Foru Araua –Ondarearen gaineko Zergari buruzkoa– indargabetu zen 2008ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Egungo egoera ekonomikoak inoiz ez bezalako krisialdia eragin du mundu osoan, bai eta Arabako Lurralde Historikoan ere. Hori horrela, beharrezkoa da zerga politikako neurriak hartzea, ongizate estatuari eusteko eta egoera ahulean dauden sektoreengan ondorioak dituzten gizarte politikak bere horretan mantentzeko.

Neurri horien artean dago Ondarearen gaineko Zerga berrezartzea, indargabetu zen unean zuen diseinu bera erabilita, zergaren egituran funtsezko lege aldaketarik sartu gabe.

Dena dela, zerga hori ekonomia ahalmen handiko zergadun gutxi batzuei besterik ez zaie aplikatuko; zergadun horiek izango dira, gehien bat, gastu publikoa mantentzen lagunduko dutenak. Ostera, zergadun asko eta asko zergaren aplikazio eremutik kanpo geratuko dira.

Xede hori erdiesteko, zerga oinarriaren murrizketa, gutxieneko salbuetsiaren kontzeptuari dagokionez, 800.000 euroraino igo da

JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

7228

Norma Foral 19/2011, de 22 de diciembre, reguladora del Impuesto sobre el Patrimonio.

Las Juntas Generales de Álava en su Sesión Plenaria celebrada el día 22 de diciembre de 2011, han aprobado la siguiente Norma Foral:

Norma Foral 19/2011, de 22 de diciembre, reguladora del Impuesto sobre el Patrimonio

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El Concierto Económico establece, en su artículo 24, que el Impuesto sobre el Patrimonio es un tributo concertado de normativa autónoma.

Por medio de la Norma Foral 22/2008, de 22 de diciembre, por la que se deroga el Impuesto sobre el Patrimonio, se derogó con efectos desde el 1 de enero de 2008 la Norma Foral 23/1991, de 11 de diciembre, del Impuesto sobre el Patrimonio.

Las actuales circunstancias económicas han provocado, a nivel mundial, una crisis sin precedentes de la que el Territorio Histórico de Álava no es ajeno y que hace necesario tomar medidas de política fiscal que permitan mantener el estado de bienestar y las políticas sociales que afectan a los sectores más desfavorecidos.

Una de estas medidas es el restablecimiento del Impuesto sobre el Patrimonio, con el diseño vigente en el momento en que se derogó, sin introducir modificaciones jurídicas sustanciales en la estructura del impuesto.

Ahora bien, la recuperación del citado Impuesto está dirigido, exclusivamente, a un reducido número de contribuyentes que por su elevada capacidad económica, contribuirán de forma más destacada al sostenimiento del gasto público, dejando, de esta manera, fuera del ámbito de aplicación del Impuesto a un elevado número de contribuyentes.

Para la consecución de este objetivo se ha elevado hasta 800.000 euros la reducción de la base imponible para todos los contribu-

zergadun guztientzat, eta ohiko etxebizitzagatik salbuespena, aldiz, 400.000 euroraino. Zenbateko horiei esker, handitu egingo da zergaren gehikortasuna, eta zerga hori ordaindu behar duen zergadun kopurua, berriz, murriztu.

Azkenik, zera azpimarratu behar da: neurriaren apartekotasunarekin bat etorri, tributu horren berreskuratzea aldi baterako izango da, 2011 eta 2012 ekitaldietan soilik egongo baita indarrean.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Zergaren izaera eta xedea.

Ondarearen gaineko Zerga zuzeneko tributua da, izaera pertsonalekoa, pertsona fisikoen ondare garbia foru arau honetan ezarritako eran zergapetzen duena.

Zerga honen ondorioetarako, pertsona fisikoaren ondare garbia izango da haren titulartasuneko ondasun eta eskubide ekonomikoen multzoa, horren balioa gutxitzen duten zamak eta kargak zein pertsona fisikoak dituen zorrak eta betebeharrak pertsonalak kenduta.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Bat. Ondarearen gaineko Zerga Arabako Foru Aldundiak exijituko du, foru arau honen 5. artikuluan jasotako kasuetan.

Bi. Aurreko idatz zatian jasotakoak ez du eragotziko Espainiako estatuak nazioartean sinatu eta berretsita itun eta hitzarmenetan edo hark atxikimendua emandakoetan xedatutakoa.

II. KAPITULUA

ZERGA GAIA

3. artikulua. Zerga gaia.

Honako hau izango da zerga gaia: subjektu pasiboa, sortzapenaren unean, foru arau honetako 1. artikulua bigarren paragrafoan aipatzen den ondare garbiaren titular izatea.

Aurreko sortzapenean subjektu pasiboarenak izandako ondasun eta eskubideak ondarearen zati direla joko da, horiek eskualdatu direla edo ondare galera egon dela frogatzen ez bada behintzat.

4. artikulua. Ondasun eta eskubide salbuetsiak.

Honako hauek egongo dira zerga honetatik salbuetsita:

Bat. Euskal Kultura Ondarearen osagai diren ondasunak, Kalifikatutako Kultura Ondasunen Erregistroan edo Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Orokorrean inskribatuak, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak aipatzen dituenak.

Bi. Espainiako Ondare Historikoaren osagai diren ondasunak, Kultura Intereseko Ondasunen Erregistro Orokorrean edo Ondasun Higigarrien Inbentario Orokorrean inskribatuak, Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legeak aipatzen dituenak, baita lege horren bigarren xedapen gehigarriak barne hartzen dituenak ere, baldin eta, azken kasu honetan, Kultura Ministerioak Kultura Intereseko Ondasuntzat jo eta dagokien erregistroan inskribatuak badaude.

Hala ere, arkeologia zonen eta toki edo multzo historikoen kasuan salbuespena ez zaie aplikatuko mugaketa perimetroaren barruan dauden edozein motatako ondasun higiezinei, bakar-bakarrik honako baldintza hauek betetzen dituztenei:

- Arkeologia zonetan, ekainaren 25eko 16/1985 Legearen 20. artikuluan aipatzen den hirigintza planeamenduko tresnaren arabera bereziki babestekoak direnak.

- Toki edo multzo historikoetan, berrogeita hamar urteko edo gehiagoko antzinatasuna dutenak eta Hirigintza Planeamenduko Arautegiaren 86. artikuluan aurreikusitako katalogoan sartuta daudenak, baldin eta horren arabera integralki babestekoak badira, ekainaren 25eko 16/1985 Legeak 21. artikuluan ezarritako eran.

Hiru. Autonomia erkidegoetako ondare historikoaren osagai diren ondasunak, bertako arau erregulatzaileetan ezarritakoarekin bat etorri kalifikatuak eta inskribatuak.

yentes, en concepto de mínimo exento, y se incrementa la exención por vivienda habitual a un importe de 400.000 euros, cantidades que, además de aumentar la progresividad del Impuesto, disminuirán el número de contribuyentes que deban tributar por el mismo.

Por último, hay que destacar que, en sintonía con la naturaleza extraordinaria de la medida, la recuperación de esta figura tributaria tendrá carácter temporal, limitándose su vigencia a los ejercicios 2011 y 2012.

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Naturaleza y objeto del Impuesto.

El Impuesto sobre el Patrimonio es un tributo de carácter directo y naturaleza personal que grava el patrimonio neto de las personas físicas en los términos previstos en esta Norma Foral.

A los efectos de este Impuesto, constituirá el patrimonio neto de la persona física el conjunto de bienes y derechos de contenido económico de que sea titular, con deducción de las cargas y gravámenes que disminuyan su valor, así como de las deudas y obligaciones personales de las que deba responder.

Artículo 2. Ámbito de aplicación.

Uno. El Impuesto sobre el Patrimonio se exigirá por la Diputación Foral de Álava en los supuestos contemplados en el artículo 5 de esta Norma Foral.

Dos. Lo previsto en el apartado anterior se entenderá sin perjuicio de lo dispuesto en los Tratados y Convenios Internacionales firmados y ratificados por el Estado Español, o a los que éste se adhiera.

CAPÍTULO II

HECHO IMPONIBLE

Artículo 3. Hecho imponible.

Constituirá el hecho imponible del Impuesto la titularidad por el sujeto pasivo en el momento del devengo, del patrimonio neto a que se refiere el párrafo segundo del artículo 1 de esta Norma Foral.

Se presumirá que forman parte del patrimonio los bienes y derechos que hubieran pertenecido al sujeto pasivo en el momento del anterior devengo, salvo prueba de transmisión o pérdida patrimonial.

Artículo 4. Bienes y derechos exentos.

Estarán exentos de este Impuesto:

Uno. Los bienes integrantes del Patrimonio Cultural Vasco, inscritos en el Registro de Bienes Culturales calificados o en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, a que se refiere la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

Dos. Los bienes integrantes del Patrimonio Histórico Español, inscritos en el Registro General de Bienes de Interés Cultural o en el Inventario General de bienes muebles, a que se refiere la Ley 16/1985, de 25 de junio, del Patrimonio Histórico Español, así como los comprendidos en la Disposición Adicional Segunda de dicha Ley, siempre que en este último caso hayan sido calificados como Bienes de Interés Cultural por el Ministerio de Cultura e inscritos en el Registro correspondiente.

No obstante, en el supuesto de Zonas Arqueológicas y Sitios o Conjuntos Históricos, la exención no alcanzará a cualquier clase de bienes inmuebles ubicados dentro del perímetro de delimitación, sino, exclusivamente, a los que reúnan las siguientes condiciones:

- En Zonas Arqueológicas, los incluidos como objeto de especial protección en el instrumento de planeamiento urbanístico a que se refiere el artículo 20 de la Ley 16/1985, de 25 de junio.

- En Sitios o Conjuntos Históricos, los que cuenten con una antigüedad igual o superior a cincuenta años y estén incluidos en el Catálogo previsto en el artículo 86 del Reglamento de Planeamiento Urbanístico, como objeto de protección integral, en los términos previstos en el artículo 21 de la Ley 16/1985, de 25 de junio.

Tres. Los bienes integrantes del Patrimonio Histórico de las Comunidades Autónomas, que hayan sido calificados e inscritos de acuerdo con lo establecido en sus normas reguladoras.

Lau. Artelanak eta antzinako gauzak, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak 37. artikulua 3. idatz zatian aurreikusitakoaren ondorioetarako ezartzen dituen kopuruak baino balio txikiagoa dutenean.

Bost. Artelanak eta antzinako gauzak, Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legeak 26. artikulua 4. idatz zatian aurreikusitakoaren ondorioetarako ezartzen dituen kopuruak baino balio txikiagoa dutenean.

Salbuetsita egongo dira, baita ere:

a) Foru arau honen 19. artikulua barne hartzen dituen artelanak eta antzinako gauzak, beren jabeek jendaurrean erakusteko gutxienez hiru urteko aldiak museo edo irabazteko asmorik gabeko kultura erakundeek gordailu iraunkorrez laga dizkietenean, gordailatuta dauden bitartean.

b) Artistek egindako lanak, egilearen ondarean irauten duten bitartean.

Sei. Etxeko ostilamendua, holakotzat hartuta gauza pertsonalak eta etxeokak, etxeok tresnak eta subjektu pasiboaren erabilera partikulareko beste ondasun higigarriak, foru arau honen 18. eta 19. artikuluetan aipatzen diren ondasunak izan ezik.

Zazpi. Ondoko tresna hauetako eskubide ekonomikoak:

a) Borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakunde bateko bazkide oso edo arrunten eskubide kontsolidatuak eta onuradunen eskubide ekonomikoak.

b) Pentsio plan bateko partaideen eskubide kontsolidatuak eta onuradunen eskubide ekonomikoak.

c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko foru arauan aipatzen diren aseguraturako aurreikuspen planei ordaindutako primei dagozkien eskubide ekonomikoak.

d) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko foru arauan aipatzen diren enpresako gizarte aurreikuspen planetara subjektu pasiboak egindako ekarpenei dagozkien eskubide ekonomikoak, hartzailearen kontribuzioak barne.

e) Subjektu pasiboak aseguru kolektiboko kontratuei ordaindutako primetatik eratorritako eskubide ekonomikoak, baldin eta enpresako gizarte aurreikuspen planez bestelakoak badira eta enpresak pentsio arloan beren gain hartutako konpromisoak bideratzen badituzte, Pentsio Planak eta Funtsak arautzen dituen Legearen testu bateratuko lehenengo xedapen gehigarrian eta horren garape nerako arautegian aurreikusitakoaren arabera, baita enpresaburuek aipaturako aseguru kolektiboko kontratuei ordaindutako primetatik eratorritakoak ere.

f) Mendekotasuna estaltzen duten aseguru pribatuei ordaindutako primei dagozkien eskubide ekonomikoak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauaren 72. artikulua 7. idatz zatian aipatzen direnak.

Zortzi. Jabetza intelektual edo industrialetik eratorritako eskubideak, egilearen ondarean irauten duten bitartean, eta jabetza industrialaren kasuan, enpresa jardueri loturik ez daudenean.

Bederatzi. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 19ko 7/1999 Foru Arauak 13. artikuluan xedaturakoari jarraituz beren etekinak salbuetsita dauzkaten baloreak.

Hamar. 1. Pertsona fisikoek beren enpresa edo lanbide jarduera burutzeko beharrezkoak dituzten ondasun eta eskubideak, baldin eta jarduera horretan subjektu pasiboa bera aritzen bada zuzenean eta ohiko jarduera gisa, eta bere errenta iturri nagusia bada. Errenta iturri nagusia kalkulatzeko, ez dira konputatuko idatz zati honetako 2 zenbakian aipatzen diren erakundeetan egiten diren zuzendaritza eginkizunen ordainsariak, ez eta erakunde horietan parte hartzeagatik emandako beste edozein ordainsari ere.

Era berean, salbuetsita daude senar-emazteen edo Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean ezarritakoari jarraituz eratutako izatezko bikoteko kideen ondasun eta eskubide komunak, baldin eta ezkontide edo izatezko bikotekideetako edozeinen enpresa

Cuatro. Los objetos de arte y antigüedades cuyo valor sea inferior a las cantidades que, en su caso, se establezcan a efectos de lo previsto en el apartado 3 del artículo 37 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco.

Cinco. Los objetos de arte y antigüedades cuyo valor sea inferior a las cantidades que se establezcan a efectos de lo previsto en el apartado 4 del artículo 26 de la Ley 16/1985, de 25 de junio, del Patrimonio Histórico Español.

Gozarán asimismo de exención:

a) Los objetos de arte y antigüedades comprendidos en el artículo 19 de esta Norma Foral, cuando hayan sido cedidos por sus propietarios en depósito permanente por un período no inferior a tres años a Museos o Instituciones Culturales sin fin de lucro para su exhibición pública, mientras se encuentren depositados.

b) La obra propia de los artistas mientras permanezca en el patrimonio del autor.

Seis. El ajuar doméstico, entendiéndose por tal los efectos personales y del hogar, utensilios domésticos y demás bienes muebles de uso particular del sujeto pasivo, excepto los bienes a los que se refieren los artículos 18 y 19 de esta Norma Foral.

Siete. Los derechos de contenido económico en los siguientes instrumentos:

a) Los derechos consolidados de los socios de número u ordinarios y los derechos económicos de los beneficiarios en una entidad de previsión social voluntaria.

b) Los derechos consolidados de los partícipes y los derechos económicos de los beneficiarios en un plan de pensiones.

c) Los derechos de contenido económico que correspondan a primas satisfechas a los planes de previsión asegurados a que se refiere la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

d) Los derechos de contenido económico que correspondan a aportaciones realizadas por el sujeto pasivo a los planes de previsión social empresarial a que se refiere la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas incluyendo las contribuciones del tomador.

e) Los derechos de contenido económico derivados de las primas satisfechas por el sujeto pasivo a los contratos de seguro colectivo, distintos de los planes de previsión social empresarial, que instrumenten los compromisos por pensiones asumidos por las empresas, en los términos previstos en la Disposición Adicional Primera del texto refundido de la Ley de Regulación de los Planes y Fondos de Pensiones, y en su normativa de desarrollo, así como los derivados de las primas satisfechas por los empresarios a los citados contratos de seguro colectivo.

f) Los derechos de contenido económico que correspondan a primas satisfechas a los seguros privados que cubran la dependencia definidos en el apartado 7 del artículo 72 de la Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Ocho. Los derechos derivados de la propiedad intelectual o industrial mientras permanezcan en el patrimonio del autor, y en el caso de la propiedad industrial no estén afectos a actividades empresariales.

Nueve. Los valores cuyos rendimientos estén exentos en virtud de lo dispuesto en el artículo 13 de la Norma Foral 7/1999, de 19 de abril, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes.

Diez. 1. Los bienes y derechos de las personas físicas necesarios para el desarrollo de su actividad empresarial o profesional, siempre que ésta se ejerza de forma habitual, personal y directa por el sujeto pasivo y constituya su principal fuente de renta. A efectos del cálculo de la principal fuente de renta, no se computarán ni las remuneraciones de las funciones de dirección que se ejerzan en las entidades a que se refiere el número 2 de este apartado, ni cualesquiera otras remuneraciones que traigan su causa de la participación en dichas entidades.

También estarán exentos los bienes y derechos comunes a ambos miembros del matrimonio o de la pareja de hecho constituida conforme a lo dispuesto en la Ley del Parlamento Vasco 2/2003, de 7 de mayo, cuando se utilicen en el desarrollo de la actividad empre-

edo lanbide jarduera gauzatzeko erabiltzen badira, eta betiere aurreko paragrafoan zehaztutako baldintzak betetzen badira.

2. Erakundeetako partaidetzen gaineko jabetza osoa, jabetza soila eta biziarteko gozamen eskubidea, horiek merkatu antolatuetan kotizatu edo ez, baldintza hauek betetzen direnean:

a) Erakundearen jarduera nagusia ez izatea ondare higigarri edo higiezin baten kudeaketa. Honako kasuetan ulertuko da erakundeak ez duela ondare higigarri edo higiezin bat kudeatzen eta beraz, enpresa jarduera bat burutzen duela: Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauaren 66. artikulua aplikatuta, erakunde horrek ez baditu betetzen beharrezko baldintzak ulertzeko aktiboaren erdia baino gehiago baloreek osatzen dutela, edo jarduera ekonomikoari loturik ez dagoenean.

b) Erakundeak sozietate izaera duenean, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauaren 66. artikuluan jasotako baldintzak ez betetzea.

c) Subjektu pasiboak erakundearen kapitalean duen partaidetza, banaka konputatuta, gutxienez ehuneko 5ekoa izatea; eta, gutxienez ehuneko 20koa izatea, hauekin batera konputatzen badu: ezkontidea, izatezko bikotekidea (Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikoteak badira), bigarren mailako aurreko ahaideak, ondorengo ahaideak edo alboko ahaideak (ez dio axola ahaidetasun horren oinarrian odol bidezko edo ezkontza bidezko ahaidetasuna, Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikotea, edo adopzioa dagoen).

d) Subjektu pasiboak zuzendaritza eginkizunak betetzea benetan erakundearen. Horregatik jasotzen duen ordainsaria jarduera ekonomikoaren eta norberaren lanaren etekin guztien ehuneko 50 baino gehiago izan behar da.

Aurreko hori kalkulatzeko, idatz zati honen 1 zenbakian zehaztutako enpresa jardueraren etekinak ez dira konputatuko jarduera ekonomikoaren eta norberaren lanaren etekinen artean.

Erakundeko partaidetza aurreko letran aipatutako pertsonaren batekin edo pertsona batzuekin batera gertatzen bada, zuzendaritza eginkizunak eta hortik datozen ordainsariak izan behar ditu, gutxienez, ahaidetasun taldeko pertsona batek. Hala ere, taldeko pertsona guztiek izan dezakete salbuespenerako eskubidea.

Salbuespenak partaidetzen balioari soilik eragingo dio –foru arau honetako 16. artikuluko Bat idatz zatian ezarritako arauen arabera kalkulatu–, hain zuzen, enpresa edo lanbide jarduera burutzeko behar diren aktiboen balioaren (erakundearen zorren zenbatekoa kenduta) eta erakundearen ondare garbiaren balioaren arteko proportzioari.

3. Arauz zehaztuko dira:

a) Zer baldintza bete behar diren enpresa edo lanbide jarduera bat gauzatzeko beharrezkoak diren ondasun, eskubide eta zorrei salbuespena aplikatu ahal izateko.

b) Zer baldintza bete behar dituzten erakundeetako partaidetzek.

Hamaika. Zergadunaren ohiko etxebizitza, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauaren 89. artikulua 8. idatz zatian jasotako definizioa betetzen duena, gehienez ere 400.000 euroraino.

III. KAPITULUA

SUBJEKTU PASIBOA

1. atala

ARAU OROKORRAK

5. artikulua. Subjektu pasiboa.

Bat. Honako hauek izango dira zergaren subjektu pasiboak:

a) Betebehar pertsonalarengatik, Arabako Foru Aldundiari Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadun gisa lotuta

sarial o profesional de cualquiera de los cónyuges o miembros de la pareja de hecho anteriormente referida, siempre que se cumplan los requisitos del párrafo anterior.

2. La plena propiedad, la nuda propiedad y el derecho de usufructo vitalicio sobre las participaciones en entidades, con o sin cotización en mercados organizados, siempre que concurren las siguientes condiciones:

a) Que la entidad no tenga por actividad principal la gestión de un patrimonio mobiliario o inmobiliario. Se entenderá que una entidad no gestiona un patrimonio mobiliario o inmobiliario y que, por lo tanto, realiza una actividad empresarial cuando, por aplicación de lo establecido en el artículo 66 de la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades, dicha entidad no reúna las condiciones para considerar que más de la mitad de su activo está constituido por valores o no esté afecto a actividades económicas.

b) Que, cuando la entidad revista forma societaria, no concurren los supuestos establecidos en el artículo 66 de la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades.

c) Que la participación del sujeto pasivo en el capital de la entidad sea al menos del 5 por ciento, computado de forma individual, o del 20 por ciento conjuntamente con su cónyuge, pareja de hecho, cuando se trate de parejas de hecho constituidas conforme a lo dispuesto en la Ley del Parlamento Vasco 2/2003, de 7 de mayo, ascendientes, descendientes o colaterales de segundo grado, ya tenga su origen el parentesco en la consanguinidad, en la afinidad, en la que resulte de la constitución de la pareja de hecho por aplicación de la Ley del Parlamento Vasco 2/2003, de 7 de mayo, o en la adopción.

d) Que el sujeto pasivo ejerza efectivamente funciones de dirección en la entidad, percibiendo por ello una remuneración que represente más del 50 por ciento de la totalidad de los rendimientos de actividades económicas y del trabajo personal.

A efectos del cálculo anterior, no se computarán entre los rendimientos de actividades económicas y del trabajo personal los rendimientos de la actividad empresarial a que se refiere el número 1 de este apartado.

Quando la participación en la entidad sea conjunta con alguna o algunas personas a las que se refiere la letra anterior, las funciones de dirección y las remuneraciones derivadas de la misma deberán de cumplirse al menos en una de las personas del grupo de parentesco, sin perjuicio de que todas ellas tengan derecho a la exención.

La exención sólo alcanzará al valor de las participaciones, determinado conforme a las reglas que se establecen en el apartado Uno del artículo 16 de esta Norma Foral, en la parte que corresponda a la proporción existente entre el valor de los activos necesarios para el ejercicio de la actividad empresarial o profesional, minorado en el importe de las deudas derivadas de la misma, y el valor del patrimonio neto de la entidad.

3. Reglamentariamente se determinarán:

a) Los requisitos que deban concurrir para que sea aplicable la exención en cuanto a los bienes, derechos y deudas necesarios para el desarrollo de una actividad empresarial o profesional.

b) Las condiciones que han de reunir las participaciones en entidades.

Once. La vivienda habitual del contribuyente, según se define en el apartado 8 del artículo 89 de la Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, hasta un importe máximo de 400.000 euros.

CAPÍTULO III

SUJETO PASIVO

Sección 1.ª

NORMAS GENERALES

Artículo 5. Sujeto pasivo.

Uno. Son sujetos pasivos del Impuesto:

a) Por obligación personal, las personas físicas que estén sujetas como contribuyentes por el Impuesto sobre la Renta de las Personas

dauden pertsona fisikoak. Zerga beraien ondare garbi guztiagatik exijituko zaie, zergari lotuta dauden ondare elementuak zein lurraldetan kokatuta dauden kontuan hartu gabe.

b) Betebehar errearengatik, Espainiako lurraldean egoiliar ez den edozein pertsona fisiko, Espainiako lurraldean titular moduan dituen ondasun eta eskubideengatik, baldin eta ondasun eta eskubide horien baliorik handiena euskal lurraldean kokatuta egonik, Arabako Lurralde Historikoan daudenen balioa beste lurralde historikoetan daudenen balioa baino handiagoa bada.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, lurralde jakin batean kokatuta daudela ulertuko da lurralde horretan kokaturik dauden, bertan egikaritu daitezkeen edo bertan bete behar diren ondasun eta eskubideak.

Espainiako lurraldean dituen ondasun eta eskubideengatik besterik ez zaio exijituko zerga subjektu pasiboari, foru arau honek 9. artikuluan Lau idatz zatian xedatutakoa aintzat hartuta.

c) Ekonomia Itunean xedatutakoaren arabera, ez-egoiliar batek bere azken egoitza Araban izan badu, zerga Araban ordaintzea aukeratu ahal izango du betebehar pertsonalaren arabera. Aukera hori, Arabako egoiliar izateari utzi dion lehenengo ekitaldian betebehar pertsonalarengatik aitorpena aurkeztuz egin beharko da.

Aurreko paragrafoan aipatu diren kasuetan aplikatuko da foru arau hau.

Bi. Ohiko egoitza zehazteko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arautegian ezarritako irizpideei men egingo zaie.

Hiru. Espainiako estatuak atzerrian dituen ordezkari eta funtzionarioak, eta atzerriko organismo, erakunde edo estatuak Espainian dituztenak zerga honi lotuta egongo dira, betebehar pertsonalarengatik edo errearengatik, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arautetan subjektu pasibo horientzat ezarritako inguruabar eta baldintza berberak kontuan hartuko dira.

6. artikulua. Espainian egoiliar ez diren subjektu pasiboen ordezkariak.

Bat. Espainiako lurraldean egoiliar ez diren subjektu pasiboek, aurreko 5. artikuluan Bat idatz zatiko b) letran aipatzen direnek, establezimendu iraunkorren bidez jarduten badute edo Espainiako lurraldean duten ondarearen zenbatekoarengatik eta ezaugarriengatik zerga administrazioak hala eskatuz gero, egoitza Araban duen pertsona fisiko edo juridiko bat izendatu beharko dute. Ordezkar horrek subjektu pasiboa ordezkatzeko du zerga administrazioaren aurrean, hain zuzen ere, zergarekiko dituen betebeharretan. Gainera, zerga aitorzeko epea amaitu baino lehen, izendapen horren berri eman beharko dute, bai eta behar bezala egiaztatu ere.

Bi. Bat idatz zatian aipatutako betebeharrak ez betetzea zergen arloko arau haustea izango da, eta 150,25 eurotik 6.010,12 euro-rainoko isunarekin zehatu ahalko da.

Hiru. Edonola ere, aurreko 5. artikuluan Bat idatz zatiko b) letran aipatzen diren ez-egoiliarren ondasun edo eskubideen gordailuzainak edo kudeatzaileak erantzukizun solidarioa izango du bere gordailu edo kudeaketaren pean dituen ondasun edo eskubideak direla-eta zerga horretan sortutako zerga zorra eta zehapenak (halakorik badago) ordaintzeko, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 42. artikuluko 4. idatz zatian ezarritako eran.

2. atala

ONDAREAK ESLEITZEA ETA EGOZTEA

7. artikulua. Ondare elementuen titulartasuna.

Ondasun eta eskubideak subjektu pasiboari egozteko kasuan kasuan aplikagarriak diren titulartasun juridikoari buruzko arauak jarraituko dira, haiek aurkeztutako frogak edo administrazioak aurkitutakoak kontuan hartuz.

Hala dagokionean, aplikatzekoak izango dira ondoko hauek: ezkontzaren eraentza ekonomikoko edo Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturitako izateko bikoteen ekonomia araubideko xedapenetan edo familiako

Físicas ante la Diputación Foral de Álava, exigiéndose el Impuesto por la totalidad de su patrimonio neto, con independencia del territorio donde radiquen los elementos patrimoniales objeto de tributación.

b) Por obligación real, cualquier persona física no residente en territorio español por los bienes y derechos de que sea titular y que radiquen en territorio español, cuando radicando en territorio vasco el mayor valor de dichos bienes y derechos, el valor de los que radiquen en el Territorio Histórico de Álava sea superior al valor de los que radiquen en cada uno de los otros Territorios Históricos.

A efectos de lo dispuesto en el párrafo anterior, se entenderá que radican en un determinado territorio los bienes y derechos que estuvieran situados, pudieran ejercitarse o hubieran de cumplirse en dicho territorio.

El Impuesto se exigirá al sujeto pasivo exclusivamente por los bienes o derechos que radiquen en territorio español, teniendo en cuenta lo dispuesto en el apartado Cuatro del artículo 9 de la presente Norma Foral.

c) En el marco de lo dispuesto en el Concierto Económico, cuando un no residente hubiera tenido su última residencia en Álava, podrá optar por tributar en Álava conforme a la obligación personal. La opción deberá ejercitarse mediante la presentación de la declaración por obligación personal en el primer ejercicio en que hubiera dejado de ser residente en Álava.

En los casos a que se refiere el párrafo anterior será de aplicación la presente Norma Foral.

Dos. Para la determinación de la residencia habitual se estará a los criterios establecidos en la normativa del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Tres. Los representantes y funcionarios del Estado Español en el extranjero y de Organismos, Instituciones o de Estados extranjeros en España, quedarán sujetos a este Impuesto por obligación personal o real, atendiendo a las mismas circunstancias y condiciones que las establecidas para tales sujetos pasivos en las normas del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Artículo 6. Representantes de los sujetos pasivos no residentes en España.

Uno. Los sujetos pasivos no residentes en territorio español a que se refiere la letra b) del apartado Uno del artículo 5 anterior, vendrán obligados a nombrar una persona física o jurídica con domicilio en Álava para que les represente ante la Administración tributaria en relación con sus obligaciones por este Impuesto, cuando operen por mediación de un establecimiento permanente o cuando por la cuantía y características del patrimonio del sujeto pasivo situado en territorio español, así lo requiera la Administración tributaria y a comunicar dicho nombramiento, debidamente acreditado, antes del fin del plazo de declaración del Impuesto.

Dos. El incumplimiento de las obligaciones a que se refiere el apartado Uno anterior constituirá una infracción tributaria, sancionable con multa de 150,25 a 6.010,12 euros.

Tres. En todo caso, el depositario o gestor de los bienes o derechos de los no residentes a los que se refiere la letra b) del apartado Uno del artículo 5 anterior, responderá solidariamente del ingreso de la deuda tributaria correspondiente a este Impuesto y, en su caso, de las sanciones, por los bienes o derechos depositados o cuya gestión tenga encomendada, en los términos previstos en el apartado 4 del artículo 42 de la Norma Foral General Tributaria.

Sección 2.ª

ATRIBUCIÓN E IMPUTACIÓN DE PATRIMONIOS

Artículo 7. Titularidad de los elementos patrimoniales.

Los bienes y derechos se atribuirán a los sujetos pasivos según las normas sobre titularidad jurídica aplicables en cada caso y en función de las pruebas aportadas por aquéllos o de las descubiertas por la Administración.

En su caso, serán de aplicación las normas sobre titularidad jurídica de los bienes y derechos contenidas en las disposiciones reguladoras del régimen económico del matrimonio o de la pareja de hecho constituida conforme a lo dispuesto en la Ley del Parlamento

kideen arteko ondare harremanei kasu bakoitzean aplikatzekoak zaizkien legeria zibileko aginduetan ondasun eta eskubideen titulartasun juridikoari buruz jasotzen diren arauak.

Ezkontzaren eraientza ekonomikoa edo Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikoteen ekonomia araubidea arautzen duten xedapen edo itunen arabera, hurrenez hurren, bi ezkontideenak edo aipaturako izatezko bikoteko bi kideenak diren ondasun eta eskubideen titulartasuna erdi bana egotziko zaie haiei biei, bestelako partaidetza kuotarik frogatzen ez bada.

Ondasun edo eskubideen titulartasuna behar bezala egiaztaturik ez dagoenean, zerga administrazioak eskubidea izango du zerga erregistro batean edo bestelako erregistro publikoetan titular bezala agertzen dena holakotzat hartzeko.

Zamak, kargak, zorrak eta betebeharrak aurreko paragrafoetan azaldu diren arau eta irizpideen arabera egotziko zaizkie subjektu pasiboari.

8. artikulua. Prezio geroratuarekin edo jabariaren erreserba eginez eskuratu diren ondasunak edo eskubideak.

Bat. Ondasunak edo eskubideak bere osoan edo zati batean geroratutako kontraprestazioz eskuratzen direnean, zergaren arauen arabera ondare elementuari dagokion balioa eskuratzailari egotziko zaio oso-osorik, eta azken horrek kontraprestazioaren zati geroratua bere zorren artean sartuko du.

Saltzaileak, berriz, kontraprestazioaren zati geroratuari dagokion kreditua sartuko du bere ondareko eskubideen artean.

Bi. Ondasunak jabariaren erreserba eginez saltzen direnean, jabetza eskuratzailari eskualdatzen ez zaion bitartean, horren eskubidea zergaren sortzapen egunera arte entregatu dituen kopuru guztien zenbatekoaz konputatuko da. Kopuru horiek saltzailearen zorrak izango dira, eta berari egotziko zaio zergaren arauen ondorioz ateratzen den ondare elementuaren balioa.

IV. KAPITULUA

ZERGA OINARRIA

9. atala. Kontzeptua.

Bat. Zerga honen zerga oinarria subjektu pasiboaren ondare garbiaren balioa da.

Bi. Ondare garbia honako bi hauen arteko aldeak zehaztuko du:

a) Subjektu pasiboaren titulartasuneko ondasun eta eskubideen balioa, hurrengo artikuluetako arauen arabera zehaztua.

b) Zama eta karga errealak, dagozkien ondasun eta eskubideen balioa txikitzen badute, eta subjektu pasiboak aurre egin behar dien zorrak edo betebeharrak pertsonalak.

Hiru. Aurreko idatz zatian ezarritakoa gorabehera, ondare garbia zehazteko, ez dira kenduko ondasun salbuetsiei dagozkien zamak eta kargak.

Lau. Zerga ordaintzeko betebeharrak errealak dagoen kasuetan, bakar-bakarrik kendu ahal izango dira Espainiako lurraldean dauden, bertan egarritu daitezkeen edo bertan bete behar diren ondasun eta eskubideei dagozkien zamak eta kargak, bai eta ondasun horietan inbertitutako kapitalengatik egindako zorrak ere.

10. artikulua. Ondasun higiezinak.

Hiri edo landa ondasunak ondorengo ataletan ezarritakoarekin bat etorritik konputatuko dira:

1. Hiru haueetatik handiena kontuan hartuta: katastro balioa; beste tributu batzuen ondorioetarako administrazioak egiaztatutako edo ezarritako balioa; eskuraketaren prezio, kontraprestazio edo balioa.

Aurreko paragrafoan jasotako balioen lehentasun arauak dinamikoki aplikatuko dira, hau da, zergaldi bakoitzean aztertu egingo dira; horrek ekitaldi batetik bestera aldaketak eragin ditzake konputatu beharreko datuan edo balioan.

2. Eraikitzen ari diren ondasun higiezinaren kasuan, eraikuntza horretan zergaren sortzapen egunera arte benetan inbertitutako kopuruak eta orubeari dagokion balioa hartuko dira ondare balio gisa. Jabetza horizontalaren kasuan, orubeari balioari dagokion zati proportzionala tituluan finkatutako ehunekoaren arabera zehaztuko da.

Vasco 2/2003, de 7 de mayo, así como en los preceptos de la legislación civil aplicables en cada caso a las relaciones patrimoniales entre los miembros de la familia.

La titularidad de los bienes y derechos que, conforme a las disposiciones o pactos reguladores del correspondiente régimen económico del matrimonio o de la pareja de hecho constituida conforme a lo dispuesto en la Ley del Parlamento Vasco 2/2003, de 7 de mayo, sean comunes a ambos cónyuges o miembros de la citada pareja de hecho, respectivamente, se atribuirá por mitad a cada uno de ellos, salvo que se justifique otra cuota de participación.

Cuando no resulte debidamente acreditada la titularidad de los bienes o derechos, la Administración tributaria tendrá derecho a considerar como titular a quien figure como tal en un registro fiscal u otros de carácter público.

Las cargas, gravámenes, deudas y obligaciones se atribuirán a los sujetos pasivos según las reglas y criterios de los párrafos anteriores.

Artículo 8. Bienes o derechos adquiridos con precio aplazado o reserva de dominio.

Uno. Cuando se trate de la adquisición de bienes o derechos con contraprestación aplazada, en todo o en parte, el valor del elemento patrimonial que resulte de las normas del Impuesto, se imputará íntegramente al adquirente del mismo, quien incluirá entre sus deudas la parte de la contraprestación aplazada.

Por su parte el vendedor incluirá entre los derechos de su patrimonio el crédito correspondiente a la parte de la contraprestación aplazada.

Dos. En caso de venta de bienes con reserva de dominio, mientras la propiedad no se transmita al adquirente, el derecho de éste se computará por la totalidad de las cantidades que hubiera entregado hasta la fecha del devengo del Impuesto, constituyendo dichas cantidades deudas del vendedor, que será a quien se impute el valor del elemento patrimonial que resulte de las normas del Impuesto.

CAPÍTULO IV

BASE IMPONIBLE

Artículo 9. Concepto.

Uno. Constituye la base imponible de este Impuesto el valor del patrimonio neto del sujeto pasivo.

Dos. El patrimonio neto se determinará por diferencia entre:

a) El valor de los bienes y derechos de que sea titular el sujeto pasivo, determinado conforme a las reglas de los artículos siguientes, y

b) Las cargas y gravámenes de naturaleza real, cuando disminuyan el valor de los respectivos bienes o derechos y las deudas u obligaciones personales de las que deba responder el sujeto pasivo.

Tres. No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, no se deducirán, para la determinación del patrimonio neto, las cargas y gravámenes que correspondan a los bienes exentos.

Cuatro. En los supuestos de obligación real de contribuir, sólo serán deducibles las cargas y gravámenes que afecten a los bienes y derechos que radiquen en territorio español o puedan ejercitarse o hubieran de cumplirse en el mismo, así como las deudas por capitales invertidos en los indicados bienes.

Artículo 10. Bienes Inmuebles.

Los bienes de naturaleza urbana o rústica se computarán de acuerdo con lo establecido en los números siguientes:

1. Por el mayor valor de los tres siguientes: el valor catastral; el valor comprobado o fijado por la Administración a efectos de otros tributos; el precio, contraprestación o valor de la adquisición.

Las reglas de prelación de valor contenidas en el párrafo anterior se aplicarán de forma dinámica, esto es, considerándolas en cada período impositivo, lo que origina o puede originar variaciones en dato o valor a computar en un ejercicio respecto a otro.

2. Cuando los bienes inmuebles estén en fase de construcción, se estimará como valor patrimonial las cantidades que efectivamente se hubieran invertido en dicha construcción hasta la fecha del devengo del Impuesto, además del correspondiente valor patrimonial del solar. En caso de propiedad horizontal, la parte proporcional en el valor del solar se determinará según el porcentaje fijado en el título.

3. Multijabetza kontratuz, denbora partzialeko jabetza kontratuz edo antzeko formulez baliatuz eskuratutako ondasun higiezinaren gaineko eskubideak ondoko arauak aplikatuz balioetsiko dira:

a) Higiezinaren titulartasun partziala berekin badakarte, aurreko 1 ataleko arauari jarraituko zaie.

b) Higiezinaren titulartasun partziala berekin ez badakarte, ziurtagiriak edo bestelako agiri adierazgarriak eskuratzeko prezioaren arabera.

Abenduaren 15eko 42/1998 Legeak, erabilera turistikoa duten ondasun higiezinak txandaka aprobetxatzeko eskubideei eta zerga arauari buruzkoak, jaso dituen eskubideak beren eskuratzeko prezioaren arabera balioetsiko dira, beren izaera edozein izanik ere.

11. artikulua. Jarduera ekonomikoa.

Pertsona fisikoen ondasun eta eskubideak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arauen arabera jarduera ekonomikoei loturik daudenak, horien kontabilitatearen emaitzazko balioaren arabera konputatuko dira, aktiboaren eta pasiboaren arteko diferentziaren arabera, kontabilitate hori Merkataritza Kodean xedatutakora egokitzen bada, betiere.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, jarduera ekonomikoei loturik dauden ondasun higiezinak balioesteko aurreko artikuluan jasotakoa aintzat hartuko da. Salbuespen izango dira, hala ere, aktibo zirkulatuaren zati direnak eta xede bakartzat higiezinaren erakuntzako edo sustapeneko enpresa jardueren garapena dutenak.

Kontabilitaterik ez badago, zerga honen gainerako arauak aplikatuta aterako da balioespena.

12. artikulua. Kontu korronteko edo aurrezki kontuko gordailuak, agerikoak edo eperakoak.

Kontu korronteko edo aurrezki kontuko gordailuak, agerikoak edo eperakoak, hirugarrenen konturakoak ez direnak, bai eta diruzaintzako kudeaketa kontuak, finantza kontuak eta antzekoak ere, zergaren sortzapen egunean duten saldoa kontuan hartuta konputatuko dira, ez bada behintzat saldo hori urteko azken hiru hilabeteetako dagokion batez besteko saldoa baino txikiagoa dela. Kasu horretan, azken saldo hori aplikatuko da.

Batez besteko saldo hori kalkulatzeko, ez dira konputatuko ondarean jasotzen diren ondasun eta eskubideak eskuratzeko edo zorrak kitatu edo murrizteko ateratako funtsak.

Mailegu edo kreditu batek sortutako zor baten zenbatekoa urteko azken hiru hilabeteetako lehenengo paragrafoan adierazitako konturen batean sartu denean, ez da kontuan hartuko batez besteko saldoa zehazteko, ez eta zor bezala kenduko ere.

13. artikulua. Kapital propioak hirugarrenen laga izanaren balore adierazgarriak, merkatu antolatuetan negoziatuak.

Kapital propioak hirugarrenen laga izanaren balore adierazgarriak, merkatu antolatuetan negoziatuak, urte bakoitzeko laugarren hiru hilabeteetako batez besteko negoziazio balioaren arabera konputatuko dira, izendapena, ordezkari eta lortutako etekinen izaera edozein izanda ere.

Ondorio horietarako, administrazio eskudunak burtsan negoziatzen diren baloreen zerrenda argitaratuko du urtero, urte bakoitzeko laugarren hiru hilabeteetako dagokion batez besteko kotizazioa eta guzti.

14. artikulua. Kapital propioak hirugarrenen laga izanaren gainerako balore adierazgarriak.

Kapital propioak hirugarrenen laga izanaren balore adierazgarriak, aurreko artikuluan aipatutakoez bestelakoak, balio nominalaren arabera balioetsiko dira, hala badagokio amortizazio primak edo diru itzulketako sariak barne hartuta, izendapena, ordezkari eta lortutako etekinen izaera edozein izanda ere.

15. artikulua. Edozein erakunde motaren funts propioetako partaidetzaren balore adierazgarriak, merkatu antolatuetan negoziatuak.

Bat. Merkatu antolatuetan negoziatutako edozein erakunde juridikoren kapital sozialaren edo funts propioen akzio eta partaidetzak, salbu inbertsio kolektiboko erakundeetako dagozkienak, urte bakoitzeko

3. Los derechos sobre bienes inmuebles adquiridos en virtud de contratos de multipropiedad, propiedad a tiempo parcial o fórmulas similares, se valorarán según las siguientes reglas:

a) Si suponen la titularidad parcial del inmueble, según las reglas del número 1 anterior.

b) Si no comportan la titularidad parcial del inmueble, por el precio de adquisición de los certificados u otros títulos representativos de los mismos.

Los derechos contemplados en la Ley 42/1998, de 15 de diciembre, sobre derechos de aprovechamiento por turno de bienes inmuebles de uso turístico y normas tributarias, cualquiera que sea su naturaleza, se valorarán, de acuerdo con su precio de adquisición.

Artículo 11. Actividades Económicas.

Los bienes y derechos de las personas físicas, afectos a actividades económicas según las normas del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, se computarán por el valor que resulte de su contabilidad, por diferencia entre el activo y el pasivo, siempre que aquélla se ajuste a lo dispuesto en el Código de Comercio.

No obstante lo dispuesto en el párrafo anterior, los bienes inmuebles afectos a actividades económicas, se valorarán en todo caso conforme a lo previsto en el artículo anterior, salvo que formen parte del activo circulante y el objeto de aquéllas consista exclusivamente en el desarrollo de actividades empresariales de construcción o promoción inmobiliaria.

En defecto de contabilidad la valoración será la que resulte de la aplicación de las demás normas de este Impuesto.

Artículo 12. Depósitos en cuenta corriente o de ahorro, a la vista o a plazo.

Los depósitos en cuenta corriente o de ahorro, a la vista o a plazo, que no sean por cuenta de terceros, así como las cuentas de gestión de tesorería y cuentas financieras o similares, se computarán por el saldo que arrojen en la fecha del devengo del Impuesto, salvo que aquél resultase inferior al saldo medio correspondiente al último trimestre del año, en cuyo caso se aplicará este último.

Para el cálculo de dicho saldo medio no se computarán los fondos retirados para la adquisición de bienes y derechos que figuren en el patrimonio o para la cancelación o reducción de deudas.

Cuando el importe de una deuda originada por un préstamo o crédito haya sido objeto de ingreso en el último trimestre del año en alguna de las cuentas a que se refiere el párrafo primero, no se computará para determinar el saldo medio y tampoco se deducirá como tal deuda.

Artículo 13. Valores representativos de la cesión a terceros de capitales propios, negociados en mercados organizados.

Los valores representativos de la cesión a terceros de capitales propios, negociados en mercados organizados, se computarán según su valor de negociación media del cuarto trimestre de cada año, cualquiera que sea su denominación, representación y la naturaleza de los rendimientos obtenidos.

A estos efectos, por la Administración competente se publicará anualmente la relación de valores que se negocien en Bolsa, con su cotización media correspondiente al cuarto trimestre de cada año.

Artículo 14. Demás valores representativos de la cesión a terceros de capitales propios.

Los valores representativos de la cesión a terceros de capitales propios, distintos de aquéllos a que se refiere el artículo anterior, se valorarán por su nominal, incluidas en su caso, las primas de amortización o reembolso, cualquiera que sea su denominación, representación y la naturaleza de los rendimientos obtenidos.

Artículo 15. Valores representativos de la participación en fondos propios de cualquier tipo de entidad, negociados en mercados organizados.

Uno. Las acciones y participaciones en el capital social o fondos propios de cualesquiera entidades jurídicas negociadas en mercados organizados, salvo las correspondientes a Instituciones de Inversión

laugarren hiruilekoaren batez besteko negoziazio balioaren arabera konputatuko dira.

Ondorio horietarako, administrazio eskudunak merkatu antolatu-tuetan negoziatzen diren baloreen zerrenda argitaratuko du urtero, urteko laugarren hiruilekoari dagokion batez besteko kotizazioa eta guzti.

Bi. Antolatutako merkatuetan kotizatzen duten erakunde juri-dikoek jaulkitako eta oraindik kotizazio ofizialerako onartu gabeko akzio berrien harpidetzaren kasuan, harpidetzako epealdiaren barruan titulu zaharrekin egindako azken negoziazio baliok hartuko da akzio horien balioz.

Hiru. Ordaintzeko dauden kapital zabalkuntzen kasuan, akzioen balioespena aurreko arauari jarraituz egingo da, erabat ordainduta baleude bezala, ordaintzeko dagoen zatia subjektu pasiboaren zor bezala sartuz.

16. artikulua. Edozein motatako erakundeen funts propioetako partaidetzaren gainerako balore adierazgarriak.

Bat. Aurreko artikuluan aipatutakoak ez diren akzio eta partaidetzen kasuan, balorazioa onartutako azken balantzearen balio teorikoaren bidez egingo da, baldin eta balantze hori, derrigorrez edo borondatez, aztertu eta egiaztatuta bada eta auditoreen txostena aldekoa bada.

Balantzeari auditoretzari egin ez bazaio edo auditoreen txostena aldekoa ez bada, balorazioa ondorengo hiru hauetatik balio handiena duenaren arabera egingo da: balio nominala; onartutako azken balantzearen balio teorikoa; edo zergaren sortzapen eguna baino lehen itxitako hiru ekitaldi sozialen mozkinen batez bestekoa ehuneko 20ko tasara kapitalizatzen ateratzen dena.

